



Ongi etorri Beranduegira. Zer? Bai, pixka bat arraroa hau paperean irakurtzea, ezta? Jo, izan ere, hainbeste murriztu zaigu aurrekontua, Beranduegiko ekipoaren traje, gorbata eta otorduak –batez ere otorduak– kentzea beste erremediorik ez zaigula geratu. Orri hau Wyoming horren programa bezala ikusi nahi baduzu, erabili irudimena, hori behintzat debalde da eta. Oraingoz.

Ezetz ba, Iñigo Urkulluk ez duela alde bakarreko prozesuetan sinesten. Hori katalantzat. Lehendakariak bi aldetako prozesuak defendatzen ditu, Moncloarekin elkarrizketa eta otordua bukatzean papurrak txukun-txukun tuperrean bilduta txintxo demonio buelta Sabin Etxera. Astelehenean Euskadi Irratian esan du “guk beste herri zentzu bat” dugula: “Kontzertu ekonomiko dugu”. Ez genuen ezagutzen lehendakariaren musika zaletasun hori. Baina, pentsatzen jarrita, egia da dezente kantatzen ari dela Kataluniari buruz hitz egiten duen aldiro.



Xabi Payak dio ez duela Kortxoenea eraitsi

“Donostia 2016ko kultur zuzendari gisa ez dut zerikusirik Kortxoenearen erasketarekin” adierazi du Xabi Payak. Esaldi horrekin, gezurtatu egin du gaztetxea botatzen hasi zirenean zabalduetako zurrumurrua: hondeamakinarekin lanean ari zen pertsona “ari naizela, ari naizela” doinuarekin bertsotan entzun zuten lekukoek eta, normala den bezala, berehala piztu zituen Paya izan zitekeen susmoa. Ba ez, ez zen bera. Lotu zuen txakurrak. Eta txirulak.

EH Bilduk lege bat proposatZZZZzzzzZZZZzzz

EH Bildu koalizioak Herritarrak Ahalduetzeko Legea aurkeztu du Eusko Legebiltzarrean. Lege horren bidez, koalizio subiranistak ahalduetzearen terrenoan daukan esperientzia zabala helarazi nahi die Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herriarrei. Gipuzkoan azken lau urteetan egindako esperientzia pilotua hartuko dute abiapuntu gisa. Izan ere, pentsaezina zirudiena lortu zuen EH Bilduk: Markel Olano ahalduetzea.

Gasteizen ikusia



Odol berria Urdaibaiko trainerurako

Urdaibai Arraun Elkartearen aurkako epaiketa amaitu da –Kontxako badia hiru bider betetzeko adina substantzia txungo aurkitu zizkieten armairuetan–, eta epaia ezagutzea besterik ez da falta. “Ze ostia, ez gara egongo juezaren zain, ez eta arteria ere”, deklaratu du klubeko zuzendaritzak, eta Urdaibairen izen ona garbi-

tzeari ekin diote: orain arteko arraunlari guztiak istriborretik behera bota eta curriculum handiko izenak fitxatu dituzte. Datorren denboraldirako posterra ere prest dute dagoeneko. Patroi lanetarako Jose Luis Korta berdaderoari egin diote eskaintza, baina Oriokoak “no!” erantzun die eta beste telefono bat txikitu du.